

FESTIVAL PHOTO DES TROIS COURONNES

Erakusteko deialdia
Oinarriak

Lehen edizioa, 2027ko apirilaren 15etik 18ra · Hendaia, Euskal Herria

Jaialdia

Hendaian, Atlantikoaren eta Pirinioen artean, Argia Kolektiboak Festival photo des Trois Couronnes argazki jaialdiaren lehen edizioa abiatu du: argazkilaritza garaikideari eskainitako bi urtean behingo hitzordua.

Jaialdia hiru ohorezko gonbidaturen inguruan antolatzen da, argazkilaritza garaikideko hiru begirada nagusi. Haien inguruan, beste argazkilari batzuk, hasiberriak zein esperientziadunak, gonbidatuta daude beren begiradak elkarrizketan jartzera, egitarau anitza osatzeko.

Lehen edizio hau 2027ko apirilaren 15etik (osteguna) 18ra (igandea) egingo da, Hendaiako erdigunean. Argazkilaritzaren bigarren mendeurreneko ospakizun nazionalekin bat egiten du. Egitarauan: erakusketak, proiekzioak, hitzaldiak eta argazkilariekin topaketak, liburu sinadurak, portfolio irakurketak eta Hendaiako ikasleekin egindako argazki proiektu baten aurkezpena.

HIRU BEGIRADA, OHOREZKO GONBIDATUAK



Erretratua: Marc Paygnard

LEHEN EDIZIO HONEN AITABITXIA

Marc Paygnard

Rapho agentzian aritutako argazkilari humanista, Doisneau, Boubat eta Ronisekin batera; hirurogei herrialde baino gehiago zeharkatu ditu eta hogeita hamar bat liburu argitaratu. Haren irudiak, besteak beste, New Yorkeko MoMAren eta Nicéphore-Niépce museoaren bildumetan daude.



Erretratua: Anne Rearick, DR

OHOREZKO GONBIDATUA

Anne Rearick

Begirada humanista eta dokumentala duen argazkilari estatubatuarra, Guggenheim bekaduna eta Roger Pic sariaren irabazlea; bere serieak denbora luzean eraikitzen ditu, pertsonetatik eta lekuetatik hurbil.



Erretratua: Eric Bouvet, DR

OHOREZKO GONBIDATUA

Eric Bouvet

Argazkilari kazetari frantsesa, bost World Press Photo Awards eta bi Visa d'Or News sari irabazi ditu; 1980ko hamarkadaren hasieratik nazioarteko gertakari handiak jasotzen ditu.

Hiru begirada horien inguruan ariko dira elkarrizketan erakusteko deialdian hautatutako argazkilariak.

JAIALDIAREN IZPIRITUA

Serieen gaia librea da. Hala ere, jaialdiak nortasun bat du: gizakiari, haren inguruneari, kulturei eta lurraldeei adi dagoen argazkilaritza.

Igarobide den lur batean sortua, bi herrialderen eta hiru kulturaren artean, jaialdiak gogo onez hartzen ditu lotzen, zeharkatzen eta munduak elkartzen dituzten begiradak. Idazkera guztiak dira ongi etorriak: dokumentala, erreportajea, egile argazkilaritza, erretratua, paisaia, analogikoa edo digitala, koloretan edo zuri-beltzean.

Izena eman

Erakusteko deialdia adin nagusiko edozein pertsonari irekita dago, amateur edo profesional, 2026ko azaroaren 16tik 2027ko urtarrilaren 16ra. Parte hartzea doan da. Oinarri osoak eta inskripzio formularioa festival.collectif-argia.com/eu/deialdia/ helbidean daude.

HENDAIA, EUSKAL HERRIA · 2027KO APIRILAREN 15ETIK 18RA · ARGIA KOLEKTIBOA

Erakusteko deialdiaren oinarriak

Itzulpena: oinarri hauen frantsesezko bertsioak bakarrik du balio juridikoa.

HITZAURREA

Festival photo des Trois Couronnes argazki jaialdia argazkilaritza garaikidearen bi urtean behingo hitzordua da, Argia Kolektiboak Hendaian antolatua. Lehen edizioa 2027ko apirilaren 15etik 18ra egingo da, hiru ohorezko gonbidaturen inguruan: Marc Paygnard, edizio honen aitabitxia, Anne Rearick eta Eric Bouvet. Gizakiari, haren inguruneari, kulturei eta lurraldeei adi dagoen argazkilaritzari lotua, jaialdia argazki idazkera guztiei irekita dago: aurkeztutako serieen gaia librea da.

1. ARTIKULUA

Xedea eta parte hartzeko baldintzak

Argia Kolektiboak argazkilari amateur eta profesionalak gonbidatzen ditu beren lana aurkeztera eta Festival photo des Trois Couronnes argazki jaialdian erakustera, 2027ko apirilaren 15etik 18ra, Hendaiako erdigunean.

Erakusteko deialdia adin nagusiko edozein pertsonari irekita dago, nazionalitate edo gai irizpiderik gabe.

Erakusteko deialdian parte hartzea doan da. Argazkilari bakoitzak hautagaitza bakarra aurkez dezake.

2. ARTIKULUA

Egutegia

Erakusteko deialdiaren irekiera	2026ko azaroaren 16a, astelehena
Itxiera (Parisko ordua; posta bidezko bidalketetan, postako zigiluaren data)	2027ko urtarrilaren 16a, larunbata, 0:00
Emaitzen iragarpena	2027ko otsailaren erdialdea
Muntaketa, argazkilaria bertan dela	2027ko apirilaren 13a (asteartea) edo 14a (asteazkena)
Jaialdia, argazkilaria bertan dela	2027ko apirilaren 15etik (osteguna) 18ra (igandea)
Inaugurazioa, argazkilaria bertan dela	2027ko apirilaren 16a, ostirala, arratsaldean
Desmuntaketa, argazkilaria bertan dela	2027ko apirilaren 18a, igandea, jaialdia ixtean

3. ARTIKULUA

Hautagaitza

Hautagaitzak honela bidal daitezke:

- formatu digitalean, jaialdiaren webguneko lineako formularioaren bidez (festival.collectif-argia.com/eu/deialdia/) edo posta elektronikoz festival@collectif-argia.com helbidera;
- posta arruntez, oinarri hauen amaieran adierazitako helbidera.

Hautagaitzak ondoko 5 elementuak izan behar ditu nahitaez:

1. Gutxienez 10 argazki, A4 argazki paperean inprimatuak, marjinarekin edo gabe, kopia bakoitzaren atzealdean argazkilariaren izena idatzita, serie koherente bat osatuz. Hautagaitza digitaletan, argazkiak fitxategi gisa bidaltzen dira lineako formularioaren bidez, posta elektronikoz edo deskarga esteka baten bidez (WeTransfer, etab.).
2. Proiektuaren aurkezpen testu bat (gehienez orrialde erdi bat): seriearen asmoa, ikuspegia, egiteko testuingurua.
3. Biografia labur bat (hamar bat lerro).
4. Lineako inskripzio formularioa beteta, edo hautagaitza fitxa (1. eranskina) posta elektronikoz edo posta arruntez egindako bidalketetarako.
5. Oinarri hauek, datatuta eta sinatuta, eskuz idatzitako «Irakurria eta onartua» aipamenarekin.

Hautagai bakoitzari hartu-agiri bat bidaltzen zaio posta elektronikoz, bere hautagaitza erregistratu bezain laster. Hautagaitza osatugabeak edo oinarri hauen baldintzak betetzen ez dituztenak ez dira aztertuko.

Posta bidez bidalitako kopiak berreskuratu nahi dituen hautagaiak bere helbidea duen gutun-azal zigiludun bat erantsi beharko dio bidalketari. Itzultzeko gutun-azal zigiludunik gabe, argazkiak, hautatuak izan ala ez, ez dira itzuliko.

Argia Kolektiboak ez du inolako erantzukizunik hartzen kopiek eta euskarriek garraioan edo itzulketan izan ditzaketen kalteengatik.

Hautagaitza aurkeztean, argazkilariak ziurtatzen du aurkeztutako argazkien egilea dela eta haien eskubide guztiak legez dituela, argazkiratutako pertsonen irudi eskubidea barne. Hala ez bada, Argia Kolektiboak ez du inolako erantzukizunik hartzen.

4. ARTIKULUA

Hautaketa

Deialdia itxi ondoren, hautagaitzak hautaketa batzorde batek aztertzen ditu: jaialdiaren zuzendariak, Argia Kolektiboaren zuzendaritza artistikoak eta egoki iritzitako beste edozein gonbidatuk. Batzordeak burujabe erabakitzen du: bere erabakiak ezin dira helegitez aurkaratu eta ez dute inolako justifikaziorik ematen. Emaitzak 2027ko otsailaren erdialdean iragarriko dira.

Hautatuen azken kopurua ez da aurretik finkatzen.

Hautatutako argazkilariei pertsonalki jakinaraziko zaie. Oinarri hauek sinatzean, onartzen dute jaialdiaren komunikazio euskarri guztietan (webgunea, sare sozialak, prentsa, irratia eta telebista) iragarriak izatea 2027ko otsailetik aurrera. Hautatuak izan ez diren argazkilarien anonimotasuna errespetatuko da.

5. ARTIKULUA

Eskubideak eta komunikazioa

Jaialdiko gonbidatuek bezala, hautatuek doan uzten dizkiote Argia Kolektiboari, elkarrekin adostuta aukeratutako fitxategi digitala edo fitxategiak, beren seriea jaialdiaren sustapen euskarrietan (webgunea, sare sozialak, prentsa, irratia eta telebista) aurkezteko soilik. Fitxategi horiek beti erabiliko dira egilearen izena aipatuta. Hautatu gabeko hautagaitza bateko argazkirik ez da erabiliko.

Baimen hau hiru urterako ematen da, emaitzak iragartzen direnetik aurrera. Epe hori igarota, dagoeneko argitaratutako edukiak jaialdiaren webgunearen eta sare sozialen artxiboetan kontsultagarri egon daitezke, berriro zabaldu gabe.

6. ARTIKULUA

Harrera eta erakusketa baldintzak

Argia Kolektiboak doan jartzen du hautatutako argazkilarien eskura erakusketa gune bat, jaialdiaren eszenografia orokorraren arabera aukeratua, gonbidatuentzat dauden baldintza berberetan:

- ostatua etxe partikularretan, jaialdiko boluntarioen sarearen barruan;
- egunean otordu bat (bazkaria), Argia Kolektiboaren kontura;
- erakutsitako obren asegurua, haien ekoizpen balioaren arabera;
- erakusketa eta aurkezpen eskubide baten ordainketa.

Aldiz, Hendaiarako joan-etorriak ez dira ordaintzen. Argia Kolektiboak ez du hautatutako argazkien inprimaketari, markoari edo garraioari lotutako gasturik hartzen bere gain.

7. ARTIKULUA

Presentzia, muntaketa eta desmuntaketa

Hautatutako argazkilariak bertan egotea derrigorrezkoa da:

- beren argazkiak muntatzeko, 2027ko apirilaren 13an (asteartea) edo 14an (asteazkena);
- jaialdi osoan zehar, 2027ko apirilaren 15etik (osteguna) 18ra (igandea);
- inaugurazioan, 2027ko apirilaren 16an (ostirala), arratsaldean.

Argazkilariak dira beren argazkien muntaketaren eta desmuntaketaren arduradunak. Desmuntaketa jaialdiaren ateak ixten diren unean egiten da, 2027ko apirilaren 18an (igandea), arratsaldean. Argia Kolektiboaren boluntarioen laguntza izango dute urrats horietan guztietan.

Eszenografiak aldez aurretik hitz egin ahal izango dira argazkilariaren eta Argia Kolektiboaren zuzendaritza artistikoaren artean, jaialdiaren eszenografia orokorrean txertatzeko.

8. ARTIKULUA

Obren salmenta

Erakusten duten argazkilariek beren obrak sal ditzakete jaialdian. Salmentak zuzenean egiten dira argazkilariaren eta erosleen artean: Argia Kolektiboak ez du parte hartzen ez salmentan, ez kobrantzan, ez obren entregan, eta ez du komisiorik kobratzen.

Erakusketa guneak serieak aurkezteko dira soilik. Produktu eratorriak (postalak, kartelak, objektuak, oroigarriak, liburuak, etab.) ez dira onartzen.

Jaialdian liburu denda gune bat egokituko da: bertan saldu ahal izango dira erakusten duten argazkilarien argazki liburuak.

9. ARTIKULUA

Aldaketak

Antolatzaileek eskubidea dute, ezinbesteko kasuetan edo inguruabarrek hala eskatzen badute, Festival photo des Trois Couronnes argazki jaialdiaren 2027ko edizioa aldatzeko edo bertan behera uzteko. Aldaketa horiengatik ez antolatzaileek ez jaialdiak ez dute erantzukizunik izango.

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko harrera baldintzei buruzko eskaera berezi oro kasuz kasu azter dezake Argia Kolektiboak, bermerik gabe; kasu horretan, hitzarmen gehigarri baten xede izango da. Antolakuntza taldea argazkilarien eskura dago edozein galdera osagarritarako eta erakusketa baldintzarik onenetan egin dadin.

10. ARTIKULUA

Datu pertsonalak

Erakusteko deialdiaren esparruan bildutako datuak informatikoki tratatzen dira. Argia Kolektiboak hautagaitzak kudeatzeko soilik erabiltzen ditu. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO) eta Frantziako «Informatique et Libertés» lege aldatuaren arabera, hautagai bakoitzak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haien aurka egiteko eskubidea du. Eskaera oro idatziz bidali behar da beheko helbidera.

HARREMANETARAKO

Argia Kolektiboa
Festival photo des Trois Couronnes argazki jaialdia, erakusteko deialdia
1 bis rue du Jaizkibel, bâtiment A
64700 Hendaia (Frantzia)

festival@collectif-argia.com
festival.collectif-argia.com/eu/deialdia/
Instagram @collectif_argia

OINARRIAK ONARTZEA

«Adierazten dut Festival photo des Trois Couronnes argazki jaialdia 2027ko erakusteko deialdiaren oinarrietako artikulu guztiak irakurri ditudala eta, beraz, osorik onartzen ditudala.»

Izen-abizenak: _____

Lekua: _____ , data: _____ / _____ / _____

Sinadura, eskuz idatzitako «Irakurria eta onartua» aipamenaren ondoren:

1. ERANSKINA

Hautagaitza fitxa

Posta elektronikoz edo posta arruntez bidalitako hautagaitzetarako. Linean, datu hauek webguneko formularioan zuzenean idazten dira.

ARGAZKILARIA

Izen-abizenak

Adina

Argazkilariaren egoera

☐ profesionala ☐ amateurra
☐ bestelakoa: .....

Posta helbidea

Telefonoa

Helbide elektronikoa

Webgunea / sareak

SERIEA

Seriearen izenburua

Erabilitako materiala (analogikoa, digitala, zulo-kamera, smartphonea...)

Serie osorako aurreikusitako argazki kopurua (gutxienez 10)

Aurreikusitako kopien tamaina

Aurreikusitako marko mota

BIOGRAFIA LABURRA (HAMAR BAT LERRO)

PROIEKTUAREN AURKEZPEN TESTUA (GEHIENEZ ORRIALDE ERDI BAT)

ERANSKINAK

- ☐ gutxienez 10 A4 kopia edo hautagaitza digitala
- ☐ proiektuaren aurkezpen testua
- ☐ biografia laburra
- ☐ hautagaitza fitxa
- ☐ oinarriak datatuta eta sinatuta
- ☐ itzultzeko gutun-azal zigiluduna (aukerakoa)

2. ERANSKINA

Hendaiara etortzeko

Hendaia (17.000 biztanle inguru) Ipar Euskal Herriko kostaldeko azken herria da, Bidasoaren bokalean, Atlantikoaren eta Pirinioen artean. Aurrez aurre, badiaren beste aldean, Hondarribia eta Irun daude; zeruertzean Hiru Koroak mendigunea altxatzen da, jaialdiari izena eman diona.

NOLA IRITSI

Trena	Hendaiako geltokia, Paris-Montparnassetik datorren TGV linearen azken geltokia (4 h 30 inguru). TER trenak Baionatik (25 min inguru) eta Bordeletik.
Trena Hegoaldera	Topoa (Euskotren) Hendaiatik ateratzen da 30 minuturo eta 35 minutu inguruan iristen da Donostiara.
Autoa	A63 autobidea, 1. edo 2. irteera. Donibane Lohizune 15 km-ra, Donostia 20 km-ra, Baiona eta Biarritz 30 minutu ingurura.
Hegazkina	Donostiako aireportua (Hondarribia) 6 km ingurura. Biarritz Euskal Herria aireportua 30 minutu ingurura. Bilboko aireportua 1 h 30 ingurura errepidez.
Itsasontzia	Itsas anezka batek Txingudi badia zeharkatzen du Hendaia eta Hondarribia artean.
Autobusa	Txik Txak tokiko sarea eta distantzia luzeko loturak (Flixbus).

ZER IKUSI

- Abbadia gaztelu-behatokia, Viollet-le-Ducek 1864 eta 1879 artean eraikia Antoine d'Abbadie esploratzaile eta jakintsuarentzat, eta Conservatoire du littoral erakundeak babestutako itsaslabarretako 66 hektareako bere lurrak.
- Euskal kornisa eta Bi Bikiak, Santa Ana lurmuturraren parean dauden harkaitz enblematikoak.
- Hendaiako hondartza, euskal kostaldeko luzeenetako bat (3 km inguru), surflarien gogokoa, eta etxe neoeuskaldunez inguratutako itsasertzeko pasealekua.
- Txingudi badia, bere kirol portua eta badiako bidea, inguru osoa egiten duen 15 km-ko bide berdea.
- Konpantzia uhartea, Bidasoan, non 1659an Pirinioetako Ituna sinatu zen. Frantziak eta Espainiak txandaka administratzen dute, sei hilabetez behin.
- Inguruetan: Hondarribiko alde zahar harresitua (itsasontziz iristeko modukoa), Donostia, Donibane Lohizune, Larrun eta barnealdeko Euskal Herriko herriak.

MUGAZ GAINDIKO LURRALDEA

Hendaiak, Irunek eta Hondarribiak bizi eremu bakarra osatzen dute, ia 100.000 biztanlekoa, 1998az geroztik Bidasoa-Txingudi mugaz gaindiko partzuergoan elkartuta, turismo, kultura eta gizarte ekintza arloetan proiektu komunak bultzatzen dituena. Hiria Baiona-Donostia Euskal Eurohirian ere sartzen da.

Frantsesa, gaztelania eta euskara egunero bizi dira elkarren ondoan. Kulturen gurutzebide hori bizi nahi du Festival photo des Trois Couronnes argazki jaialdiak: Euskal Herrian errotutako hitzordua, mugaren bi aldeetako publikoari irekia, eta mundura begira.

FESTIVAL PHOTO DES TROIS COURONNES

FESTIVAL.COLLECTIF-ARGIA.COM